

zakilixut

© Olariagak



Eneko Bidegain | URRUÑA

ATZEKOZ AURRERA

BOB EDMÉ



Betizuak eta jendeen izuak

Betizu batek bariatuar bat zauritu izanak zenbait eztabaida sortu du herrian

Baionako suprefeturako bulego itxietan betizuen «auzia» trenkatuko duten bitartean, behi basa horiek lasaitasun osoz jarraituko dute mendi mazela haizetsuetako larre eta oteen artetik bazkatzen. Urruña eta Biriaturaren arteko muinoetan dabiltzan hogeitaz betizuetarik batek zuen zenbait herritarren kezka piztu iazko apirilean, bariatuar bat besapean larriki zauritu baitzuen. Zaurituak EGUNKARIARI eman zizkion azalpenen arabera, delako betizu hori baratze eta pentze pribatuetan zebilen. Pentze batetik kanporatzeko taldeño batean bildu ziren. Betizuak orduan zuen haren paisaia aurkitzen zena jo. «Animalia horiek kasu eman behar dute ez edozein lekutan ibiltzeko. Zaindu behar dira. Non-nahi aske uzteak arazoak sortzen ditu» zioen zaurituak.

Ibardin aldean dabiltzan betizuak ere izutiak dira, baina inguru horretan dabiltzan mendizaleei esker ohituagoak daude.

BOB EDMÉ



Baina betizuak behi basak dira, basahuntzak eta basurdeak basak diren bezala. Euskal Herriko zenbait lekutan hainbertzetaraino dira basak non gizakiari berehala ihes egiten dioten. Ibardin aldean dabiltzanak ere ahalaz jendearengandik ihesi ibiltzen dira, baina mendizale gehiago dabilenez

leku haietan, ohitura hartua dute. Ez da betizuen kitzikatzen jostatu behar. «Inori ez zaio bururat etorriko basurde baten aitzinean gertatzean, haren zirikatzeari». Jean-Pierre Selliez betizuen jabeak errespetatu behar direla dio.

Eremu horretako betizuek jabe bat baldin badute ere, ez dira etxalde bati lotuak diren abereak. Jabeak hil nahi dituelarik, tiroz hil behar ditu. Alabaina, betizuen haragia jaten da, behienak baino gustu azkarragoa du. Betizuak ez ditu inork zaintzen. Non-nahi ibil daitezke, bidea libre badute, ahuntzak bezala arroka bete malkarretan edo pottokak bezala zelai berdeetan. «Hesiak behar bezalakoa izan behar dira. Sailak itxi egin behar dira». Selliezek badaki istripua gertatu zen pentzeko jabeak ez zituela bere sailak ixten. Ez zen,

beraz, betizuaren falta pentze pribatuan sartu baldin bazen.

Suprefeturako bilkurak zer ematen ote duen? Selliezek ez du pentsatzen deus berezirik aterako dela hortik. Espezieen aberastasuna aldarrikatzen den garaian ez bide dira abere horiek suntsitu beharrez hasiko. Badu hogeita hamar urte Selliez betizuen jabe bilakatu zela eta ordu-

tik hona ez omen da istripurik gertatu. Badu mendeak eta mendeak behi basa horiek mendian bizi direla. Jendeak abere basa dela ulertzen dueno eta bertze abere basekin bezala jotkatzen dueno, bertze mende anitzez jarraitu behar lukete betizuek Ibardin aldeko ezkur eta larreak lasaitasunez ahoratzen.